



ERRENTERRIAN 11 KOLORE

Kamisetak eta aterkiak kustomizatzea





Kamisetak


Materialak

- 3 kolore ezberdinetako oihal zaharrak .
- Gehiago erabili nahi ez den kotoizko kamiseta liso bat.
- Guraizeak.
- Metroa.
- Jostorratza eta haria.



Prozedura

1. Aukeratu oihal bat (**A kolorea**) eta **30 zm-ko sei tira** moztu. Hauek lerroan paraleloki jarri eta mutur biak lotu **B koloreko** beste oihal batekin.



2. Egin 3 multzo kolore ezberdinekin

1. multzoan 30 zm-ko 15 tira bilduko ditugu

2. multzoan 10 tira

Eta 3. multzoan 5 tira.

Hasieran paraleloki lotutako 6 tirketako egituran hasiko gara tira berriak korapilatzen.

Beheko aldean lotuko dugu kopuru gehien duen multzoa. Era honetan forma piramidala emango diogu.

Korapiloak egiten zentrotik abiatuko gara eta alboetara hedatuko dugu gure lana.



3. Behin tira guztiak korapilatuak izan, guraizeekin forma polita emango diogu. Horrela nibel ezberdinak agerian gera daitezten.



4. Bukatzeko, burututako lana kamisetan josiko dugu 4-5 puntada josiz lepo eta bizkarraren tartean. Kamisetaren josturaren pare, hain zuzen ere.





I N S T A M A G

Aterkiak

Materialak

- Aterki zahar bat
- Pita haria
- Artaziak
- 3 kolore ezberdinetako 15 zm-ko tirak
- Kaskabiloak
- Metroa



Prozedura

Kateak osatu 15 zm-ko 3 atal koloreanitzak beraien artean korapilatuz. Kate-muturrean beste bi korapilo egin lau tira solte gera daitezzen. Solte diren tiren artean kaskabilo 1 lotu pita haria erabiliz. Behin kate segida ezberdinak lortuta euritakoaren erpin bakoitzean banaka kokatuko ditugu, oraingoan ere pita hariaren laguntzarekin.

